



OFIZIO LABURRA

Jose Ignazio Arana

Iturria: *Ama Virgiña guztiz garbi concepcioaren ofizio laburra latinezco itz neurtuetatic ensquerasco zorziocoetara itzulia*, Propagandako Moldiztegia, 1872.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AranaJIOfizio.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

AMA BIRJIÑA
GUZIZ GARBI
KONZEPZIOKOAREN
OFIZIO LABURRA
LATIÑEZKO ITZ NEURTUETATIK
EUSKERAZKO ZORZIKOETARA
ITZULIA

ERROMAN
PROPAGANDAKO MOLDIZTEGIAN
1872 garren urtean

BEDEINKATUA IZAN DEDILLA
BIRJIÑAREN SORTZE TXIT SANTU
ETA MANTXA GABEA
(100 urteko induljenziak)



ITZ-AURREA

Eskritura Santuko itz eta esaera txit egoki ezarriak in anziaña latinenez egindako ofiziotxo au egunero Beato Alonso Rodriguez Jesusen Konpañiakoak debozio gozo ta irazakiz esan oi zuen: eta Ama Birjiñak berak agindurik, bere bizitzak dionez, or-emen ta inguru guzietan alegiñez zabaldu zuen. Geroagoan Europako

itzkuntza askotan onen izenarekin argitaratu zan; batez ere oniritzi zue-
netik Aita Santu Paulo bost-garrenak 1615-en urtean, emanik ondo erre-
zatu edo kantatzen dutenentzat 100 eguneko barkazio edo induljenziyak.
Gaur ordea geroz emanakiñ 700 egunetarañokoak gutxienaz aldi bakoi-
tzean, diotenez, irabazi leizke.

Are maitagarriagoa egiten zagu orañ egintzatxo au, mundu guziak
Fedekotzat sinistu bear duen ezkeroz bere gaya, zeña dan Ama Birjiñaren
aurren izatearen ezkutapen edo misterio zoragarriya.

Beiñ betiko itzegin zuen Jaingo-orde gure Aita guziz Santo Pio bede-
ratzigarrenak, mundu guziko Apaiz-nagusiz eta eziñ esan-al jendez ingu-
ratua Erroman arkitzen zala Abenduaren 8-an 1854-garren urtean; esanaz
«Jesu Kristo gure Jaunaren, San Pedro ta San Pablo Apostolo doatsuen
eta Gere eskubidez; adierazten, aitortzen, eta erabakitzen degu ezik,
Maria Birjiña guziz doatsua bere aurrenengo izate ber-berean, Jaingo
guzialtsuaren grazia ta pribilejio espezialez, gizonen Salbatzalle Jesukris-
toren merezimenduak ikusirik, jatorrizko bekatu-kutsu guzitik oso libre
leendanez gordean izan zala dion erakutsikizuna, Jaungoikuak agertua
dala eta orrenbestez Kristau leyal guziakgandik sendo ta iraunkiro sinis-
tua izan bear dan».

Ai Euskaldunen biyotz ederretan (batez ere gazteenetan) sorturik,
jayo, azi, loretu eta iraungo balu debozio eder onek: eta berso zakar gaiz-
takerizkoak utzirik, zortzikoen soñu
egokienetan Ama Birjiña txit doatsu bekatuaren akatzik ere bagea ta
gizon eta Aingeruen maitagarria alabatuko balute beti baztar guzietan!...

GOIZ-ORDUAK EDO MAITIÑAK ETA LAUDEAK

Ea! Kantaitzazute
Españ da biyozak,
Birjiñ doatzuaren
Honra ta alabantzak.

V. Atoz nere laguntzan
Birjiña Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
Etsayen eskutik.
Gloria Aitari ta
Gloria Semeari
Gloria betikoeran
Megope Santoari.

Kantaera

Agur munduko Jabe
Zeruko Erregiña,
Agur Goizeko izarra,
Birjiñen Birjiña.
Agur graziz betea
Jainkozko argi piña
Egizu mundutarren
Aldez alegiña.

Jaunak autu zinduzen
Betiko-eratik,
Jaingo Seme bakarren
Amatzat arturik,
Zeiñgatik lur, itxaso,
Ta aizeak sorturik
Edertu zaitu Adanen
Bekatu bagerik.

Amen.



V. Leendanez autatarik
 Jainkoak gorde du;
R. Ta bere Jauregiyan,
 Bizitzera artu du.
 V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregina, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, inor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, bigunkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik orain zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezkerro: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjina gelditurik aur egin zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzan du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.
 V. Ongi-esan deiogun
 Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
 Millaka berari.
 V. Ta Fededun animak
 Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
 Beude pake onean.
 Alabiz.

PRIMA - LENENGO ORDUAK

V. Atoz nere laguntzan
 Birjina Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
 Etsayen eskutik.
 Gloria Aitari ta
 Gloria Semeari
 Gloria betikoeran
 Megope Santoari.

Kantaera

Agur Birjin jakintsu
 Etxe Jainkozkoa
 Maiz ta zazpi pillarez
 Apaindutakoa
 Bekatu gaitz guzitik
 Zu gordetakoa.
 Ta amak jayo baño len
 Donsututakoa.

Zu bizien Ama ta
 Santuen Atea
 Jakoben izar berri
 Ta Aingeruen Jabea.
 Izugarria etsayei
 Gerrari-taldea,
 Izan zaite Kristauen
 Kaya ta estalpea.
 Alabiz.

V. Sortu zuan Jainkoak
 Graziaz betea:
R. Egin du gauza danen



Gaiñ bera azaltzea.
V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregiña, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, iñor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, biguñkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik oraiñ zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezker: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjiña gelditurik aur egiñ zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzan du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.
V. Ongi-esan deiogun
 Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
 Millaka berari.
V. Ta Fededun animak
 Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
 Beude pake onean.
 Alabiz.

TERZIA - IRUGARREN ORDUAK

V. Atoz nere laguntzan
 Birjiña Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
 Etsayen eskutik.
 Gloria Aitari ta
 Gloria Semeari
 Gloria betikoeran
 Megope Santoari.

Kantaera

Agur Noeren kutxa
 Salomon-jargoya
 Pakezko uztargi ederra,
 Moisez-en sasiya.
 Usgozeill-loreduna,
 Jedeon-nar zuriya
 Jainkoaren Ate-itxi, ta
 Sanson-en eztiya.

Aiñ Seme Jainkozkoari
 Zegokion ongi
 Leendanez gorde Ebaren
 Jatorri-gaitzeti,
 Beretzat artu zuen
 Ama, eta ez utzi
 Pekatu baten ere
 Mendean berari.
 Alabiz.

V. Zeruen goyenean
 Ni bizitzen nago
R. Eta nere jargoya



Odeyez gain dago.
V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregina, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, inor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, bigunkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik orain zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezker: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjina gelditurik aur egin zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzen du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.
V. Ongi-esan deiogun
 Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
 Millaka berari.
V. Ta Fededun animak
 Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
 Beude pake onean.
 Alabiz.

SEXTA - SEI-ORDUAK

V. Atoz nere laguntzan
 Birjina Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
 Etsayen eskutik.
 Gloria Aitari ta
 Gloria Semeari
 Gloria betikoeran
 Megope Santoari.

Kantaera

Agur Birjiria-Ama Eliz
 Irutasungoa,
 Aingeruen poza, ta
 Gela garbira;
 Tristeen atsegiña
 Baratz gozoroa,
 Supritzall palma, Zedro
 Kastidadezkoa.

Zera lur bedeinkatu
 Apaiz-erriena,
 Santa ta jatorrizko
 Gaitzik etzuen.
 Jainkoaren Uri, ta Ate
 Egiterarena,
 Birjin paregabea!
 Zera doaitsuen.
 Alabiz.

V. Nola lirio ederra
 Aranza tartean
R. Ala nere maitea
 Alabaen artean.



V. Adi zazu Maria
Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
Bijoa Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregina, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, inor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, bigunkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik orain zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezker: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjina gelditurik aur egin zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzen du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
Bijoa Zugana.
V. Ongi-esan deiogun
Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
Millaka berari.
V. Ta Fededun animak
Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
Beude pake onean.
Alabiz.

NONA - BEDERATZI ORDUAK

V. Atoz nere laguntzan
Birjina Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
Etsayen eskutik.
Gloria Aitari ta
Gloria Semeari
Gloria betikoeran
Megope Santoari.

Kantaera

Agur, Erri gordetzail,
Ta Torre irmotua,
Dabid-en eskutuz, ta
Armaz apaindua.
Pisturikan sortzeran
Amodio-sua,
Garaitu dezu ordutik
Dragoi indarsua.

O emakume portitz
Ta Judit ermea,
Dabid berotu zuen
Abigail gaztea!
Rakel-en Seme bat zan
Ejiptoan jabea
Mariarena Mundu
Salbatutzallea.
Alabiz.

V. Guziro ederra zera,
O Nere Maitea!
R. Zu jatorri-mantxarik
Beñere gabea.



V. Adi zazu Maria
Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
Bijoa Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregiña, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, iñor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, bigunkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik orain zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezkerro: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjiña gelditurik aur egiñ zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzan du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
Bijoa Zugana.
V. Ongi-esan deiogun
Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
Millaka berari.
V. Ta Fededun animak
Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
Beude pake onean.
Alabiz.

VISPERAS - ARTSALDE-ORDUAK

V. Atoz nere laguntzan
Birjiña Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
Etsayen eskutik.
Gloria Aitari ta
Gloria Semeari
Gloria betikoeran
Megope Santoari.

Kantaera

Agur, o Erlojua!
Nun dan atzeratzen
Eguzkiya amar mallaz:
Jainkoa da gizontzen,
Gizona asi deiñ betik
Zeruronz goitutzen.
Aingeruez beerago
Jauna da jetxitzen.

Dago euzki orren argiz
Distiatzen Maria,
Ta arkitzen da sorreran
Nola egun sentia.
Lirioa arantza artean
Iltzeko Dragoia;
Gabaz dabiltzanentzat
Ederra illargia.
Alabiz.

V. Atera nuen argi bat
Itzaltzen ez dana.
R. Laño bezela nuen
Estaldu lur dana.



V. Adi zazu Maria
Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
Bijoa Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregiña, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, iñor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, bigunkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik orain zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezkerro: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjiña gelditurik aur egiñ zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzan du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
Bijoa Zugana.
V. Ongi-esan deiogun
Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
Millaka berari.
V. Ta Fededun animak
Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
Beude pake onean.
Alabiz.

COMPLETAS - AZKEN-ORDUAK

V. Bigun bedi, Ama, guri
Jesus, zu bitartez.
R. Ta aserrea ken beza
Gugandi leendanez,
V. Atoz nere laguntzan
Birjiña Zerutik,
R. Alegiñez ni gorde
Etsayen eskutik.
Gloria Aitari ta
Gloria Semeari
Gloria betikoeran
Megope Santoari.

Kantaera

Agur, Birjiñ loredun,
Ta Ama ederra txitez,
Erregiñ biyotz-bera
Koroitua izarrez.
Garbi ta tatxa gabe
Aingeruen gañez,
Erregeen eskubiyan
Zaude urrezko soñez.

Zugati, graziazko Ama,
Poz email maitea,
Itxas-izar argiya,
Oi Salbatzallea,
Erien osasuna, ta
Zeruko atea.
Ikus deigula Jesus
Santuen Erregea.
Amen.



V. Olibo leun dirudi
 Zure izen Mariyak
R. Sutu bitza gizonak
 Zu maitatu nayak.
 V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria:
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.

Otoitza

Santa Maria, Zeruetako Erregina, Jesukristo gure Jaunaren Ama, eta Munduaren Jabea, inor ere bakar-utzi eta gaizki begiratzen ez dezuna: begira idazu, Andrea, biguñkiro begi maitatsuaz, eta iritxi egidazu zure Seme maiteagandik nere bekatu guzien barkazioa; nik orain zere Sortze edo Konzepzio doatzu ta guziz garbia zentsu gozoroaz pozalditzen dedan ezkerro: artu dezadan gero betiko doatsutasunezko saria, au ematen dirala Birjina gelditurik aur egin zenduenak berak, Jesukristo gure Jaunak, zeñak bizi ta erreinatzan du Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean, Irutasun osoan, Jaungoikoa, eunkida guzien eunkietan. Amen.

V. Adi zazu Maria
 Gaur nere eskaria
R. Ta nere deadar dana
 Bijoia Zugana.
 V. Ongi-esan deiogun
 Jaungoiko Jaunari
R. Emanikan ezkerak
 Millaka berari.
 V. Ta Fededun animak
 Zeruko pozean
R. Jaungoikoaren errukiz
 Beude pake onean.
 Alabiz.

Ezkeintza

Humill dizugu eskeintzen
 O Birjina ongilla!
 Orain esan dizugun
 Alabantza pilla:
 Bizitzan lagundurik
 Atoz gure billa
 Eriotzan, Mariya:
 Ala izan dedilla.



OTZULIA EDO ANTIFONA

Au da Zigorra, zeñean etzan metondorik, ez geroagoko kulparen azalik.

V. Zere sortzaran, Birjiña,
Orban gabea izan ziñan.

R. Erregutu egiozu gugatik
Aitari, zeñaren Semen
mundura-eman zenduen.

Eskaera

O Jaungoikua! Zere Semearentzat, Birjiñaren Sortze mantxa gabe-koaren bidez, bizileku egokiya prestatu zenduana: erregutzen dizugu ezik, nola hura bere Semearen eriyotza aurrez ikusita, bekatu kutsu guzi-guzi-tik leendanez gorde zenduen, ala ere gu oso garbiyak zedorrengana iritxi-tzea eman deiguzula: Jesu Kristo gure Jauna beragatik, zeña zurekiñ da Espiritu Santuarekiñ bizi da, ta erreiñatzen du eunkida guzien eunkidaetan. Ala izan dedilla.

Bedeinka bedi zure garbiera
Betikoera guzian
Bada alaitzen da Jaungoikoa bera
Añ edertasun andian.
Zeruko Erregiñ paregabea
Birjiña guzien lorea!
Gaurtik dizkitzut nik zuri eskeintzen
Bizitza, biyotz ta anima;
Begira errukiz, ez utzi ni arren
O nere Ama txit maitea!

MARIA TXIT SANTARI ORAZIOA

Oroitu zaitez, o Maria Birjiña txit beraa, laguntza eske eta sokorru billa Zugana joan diranetatik iñor Zuk utzia izandu danik, egundaño etzala aditu izandu. Konfianza onekin alaiturik Zugaratzen naiz ni ere, o Birjiñen Ama Birjiña, eta nere pekatuen pixupean lantuak emanaz, benturatzten naiz jartzen zure begi beneragarrien aurrean. O Jaungoikoaren Ama! ez itzatzu arren despreziatu nere erreguak, ezpada biotz onez aditu eta ar itzatzu. Ala izan dedilla.

Aita Santu Pio IX garrenak eman zituen 300 eguneko induljenziak, orazio au debozioz erreztatzen dan aldi bakoitzagatik.

A. M. D. G.